

Euskal AEko BPGk urte arteko %0,5eko hazkundera izan zuen 2010eko bigarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoaren aldean hazkundera positiboa da, %0,3

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko BPGk %0,5eko hazkunde erreala izan du 2010eko bigarren hiruhilekoan, 2009ko aldi beraren aldean. Tasa hau hobea da –puntu bat eta hiru hamarrenez- aurreko hiruhilekoaren aldean.

Espainiako ekonomiarako datua %-0,1 izan da; 27-Europar Batasunerako eta Euro-16 zonalderako, %1,9, eta %3,0 Estatu Batuetarako.

Aurreko hiruhilekoaren aldean Euskal AEko BPGk %0,3ko hazkundera izan zuen; hiruhilekoen arteko hirugarren datu positiboa da, tasa negatiboak lau hiruhilekotan eduki ziren, jarraian. Hiruhileko arteko aldakuntza hori %0,2 izan da Espainiako ekonomian, %1,0 27-EBn eta Euro eremuan, eta %0,4 AEBn.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak
INE eta Eurostat

Eskaintzaren ikuspuntutik, industriak eta zerbitzuek, batez ere, ekarri dute bai urte arteko, bai hiruhilekoen arteko bilakaeraren hobekuntza; lehen sektorean (hiruhilekoen arteko tasan izan ezik) eta eraikuntzan bilakaerak negatiboak dira.

1. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE

	2008	2009	2009				2010	
			I	II	III	IV	I	II
Nekazaritza eta arrantza	-6,1	3,6	16,1	15,1	-2,6	-13,0	-26,6	-4,2
Industria	-0,6	-12,7	-12,7	-13,7	-14,8	-9,4	-2,3	0,9
Eraikuntza	-5,8	-3,6	-6,0	-4,8	-2,1	-1,1	-5,4	-5,5
Zerbitzuak	3,3	-0,2	1,0	-0,4	-0,6	-0,8	0,5	0,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,3	-2,0	-2,2	-2,5	-2,4	-0,9	-0,1	2,2
BPGda merkatuko preziotan	1,3	-3,8	-3,3	-4,3	-4,5	-3,1	-0,8	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Lehen sektoreak %4,2ko murrizketa du 2009ko hiruhileko beraren aldean, eta %20,5eko igoera hiruhilekoen artean.

Industrian, 2008ko bigarren hiruhilekotik aurreneko aldiz, urte arteko hazkunde-tasa positiboa da, batez ere Metalurgia eta metalezko artikulua, Garraio-materiala eta Kautxu eta plastikoa adarren jokaeretatik. Hazkunde bera dugu hiruhilekoen artean, sei hiruhilekotan tasa negatiboa izan ondoren.

2. taula. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE

	2009				2010	
	I	II	III	IV	I	II
Nekazaritza eta arrantza	9,7	-7,7	-14,8	0,9	-7,5	20,5
Industria	-7,7	-2,3	-0,1	0,5	-0,4	0,9
Eraikuntza	-0,5	-0,1	-0,2	-0,3	-4,8	-0,2
Zerbitzuak	-1,2	-0,1	0,2	0,3	0,1	0,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	-0,7	-0,2	-1,2	1,1	0,2	2,1
BPGda merkatuko preziotan	-2,2	-0,9	-0,1	0,1	0,1	0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Eraikuntzan jaitsierak izan dira bai urte artekoan (%-5,5), bai hiruhilekoen artekoan (%-0,2); azken honetan jaitsiera apalagoa da 2010eko lehen hiruhilekoan (%-4,8) baino. Bilakaera hori sektoreko enplegu okupatuan islatzen da, zeina bi tasetan jaisten den berriz ere.

Zerbitzuen sektoreko bilakaera globalean ibilbidea hobea da gainerakoetan baino; bai urte artekoa (%0,9), bai hiruhilekoen artekoa (%0,4) positiboak dira. 2010eko lehen hiruhilekoko tasen aldean, urte arteko hobekuntza lau hamarrenekoa da eta hirukoa hiruhilekoen artekoan.

2010eko bigarren hiruhilekoan, **Merkatuko zerbitzuek** hazkunde-tasa positiboak dauzkate bai urte artekoan (%1,0), bai hiruhilekoen artekoan (%0,3); tasa horiek, aurreko hiruhilekoen aldean, lau eta bi hamarrenez goitik daude.

Ez-merkatuko zerbitzuetan ere, lehen hiruhilekoan tasa oso apal edo negatiboak izan ondoren, bizkortze-zantzuak antzematen dira: %0,3 urte artekoan eta %0,9 hiruhilekoen artekoan.

Eskariaren bilakaeran, Barne-eskarian hobekuntza dugu eta baita ere kanpo-sektorearen joera hedakorragoa; bi faktoreok bat eginik ulertzen da BPGren hobekuntza bai urte artekoan, bai hiruhilekoen artekoan.

3. taula. BPG m / p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE

	2008	2009	2009				2010	
			I	II	III	IV	I	II
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	0,6	-3,7	-3,8	-4,4	-4,2	-2,5	-0,6	1,4
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	7,0	3,7	6,0	4,0	2,6	2,4	0,5	1,4
Kapital-eraketa gordina	-2,2	-15,4	-13,7	-16,2	-17,1	-14,6	-9,8	-6,5
Barne-eskaria	0,7	-5,7	-5,0	-6,3	-6,7	-5,0	-2,6	-0,5
Guztizko esportazioak	0,0	-18,4	-17,1	-20,5	-20,0	-15,7	1,1	11,1
Guztizko inportazioak	-0,8	-20,5	-19,1	-22,7	-22,0	-18,2	-2,3	9,0
BPGda merkatuko preziotan	1,3	-3,8	-3,3	-4,3	-4,5	-3,1	-0,8	0,5

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Familia-etxeetako azken kontsumoaren gastuan (Kontsumo Pribatua) hazkundera dago, bai hiruhilekoen artekoan (%1,1), bai urte artekoan (%1,4), tasa negatiboetan sei hiruhilekoetan izan ondoren. Kontsumo pribatuaren bilakaera hau funtsezkoa da barne-eskariaren urte arteko tasan hobekuntza izan dadin.

Kontsumo Publikoan desazelerazio argia izan zen 2010eko lehen hiruhilekoan; orain berriz hazten ari da, bai urte artekoan (%1,4), bai hiruhilekoen artekoan (%0,8).

Kapital Eraketa Gordinaren (Inbertsioa) bilakaera Eraikuntzak eta Ekipo-ondasunek erabakitzen dute. Lehen hiruhilekoaren aldean apaldu dute jaitsiera bai urte artekoak, bai hiruhilekoen artekoak; halere, eskarian tasa negatiboak ditugu azken zortzi hiruhilekoetan.

Kontsumo publiko eta pribatuaren bilakaerak eta Kapital eraketa gordinarenak, beren pisu erlatiboekin batera taxutzen dute **Barne eskariaren** jokaera, zeinaren urte arteko jaitsiera bi puntu eta hamarren batez moderatzen den lehen hiruhilekoko datuen aldean. Hiru hilekoen artean eta hirugarren hiruhilekoz jarraian hazkundera positiboa da, %0,2.

4. taula. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko Hazkunde-tasak. Euskal AE

	2009				2010	
	I	II	III	IV	I	II
Etxeguneen azken kontosumoko gastua	-1,4	-0,9	-0,7	0,5	0,6	1,1
Herri-administrazioen azken kontsumoko gastua	0,0	0,0	1,9	0,5	-1,8	0,8
Kapital-eraketa gordina	-6,6	-4,8	-3,7	-0,2	-1,4	-1,3
Barne-eskaria	-2,1	-1,9	-1,3	0,2	0,4	0,2
Guztizko esportazioak	-11,5	-3,7	1,4	-2,4	6,2	5,7
Guztizko inportazioak	-9,6	-6,3	-0,2	-3,1	7,9	4,5
BPGda merkatuko preziotan	-2,2	-0,9	-0,1	0,1	0,1	0,3

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak

Kanpo-sektorean, esanahitsuena BPGren bilakaerari egindako ekarpen positiboa da. 2009an zehar, kanpo-merkataritzaz ari garelarik, bai esportazioetan, bai inportazioetan urte arteko tasa negatiboak izan genituen (%20ren gainetik inoiz); 2010eko lehen hiruhilekoan gelditu egin zen erorketa eta bigarreanean hazkunde nabarmena dugu.

Urte artekoan %11,1 hazi dira esportazioak eta %9,0 inportazioak. Hiruhilekoen artekoan, %5,7 eta %4,5.

Langile landunak %0,4 hazi dira (4.000 landun gehiago) aurreko hiruhilekoaren aldean eta %0,6 jaitsi (6.000 gutxiago) aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Enplegu-hazkundera zerbitzuei zor zaie; jaitsi egin da lehen sektorean, industrian eta eraikuntzan.

BPGren bilakaera herrialdeka ikusiz gero, Araba ibili da hoberen, hiruhilekoen arteko tasetan %0,5 hazi da; Bizkaian %0,4 eta Gipuzkoan %0,1. Urte artekoan, Araban %1,1, Bizkaian %0,4 eta Gipuzkoan %0,2.

Ohar metodologikoa: 2010eko bigarren hiruhilekoko honetan, 2008 urteko behin-betiko datuak ekarri dira, eta 2009koak, Euskal AEko Kontu ekonomikoen aurrerapena; honek guztiak 2008ko lehen hiruhilekotik aurrera aldaketak sorrarazi ditu hiruhilekoko serietan.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel:+34-945-01 75 80 Faxa:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoen gaineko datu-bankua